

## Eztabaida-gaiak

**Urban Commerce** jardunaldiaren edizio berri honetan, merkataritza-sektorearen egungo egoera, joera berriak eta merkataritza-formatuen arteko mugimenduak aztertuko dira, eta, horrekin batera, sakon eztabaidatuko da merkataritza-enpresak bizirik irauteko eta etengabe aldatzen ari den garai honetatik sendotuta irteteko erabil ditzakeen estrategien inguruan.

Krisi ekonomiko latz honek eragina izan du aurreikuspenen kudeaketan, eta ezkortasuna zabaldu du kontsumitzaileen eta enpresen artean, merkataritza sektorea baita krisia gehien pairatzen ari den sektoreetako bat.

Zalantzarik gabe, baina, aldaketen abiadura da azken urte hauetako egoeraren ondorio deigarrietako bat; aldaketak ari dira gertatzen inguru ekonomikoan, baina baita kontsumitzaileen gustu eta eroste-ohituretan, eta teknologia aplikatu berriek merkataritza-enpresan duten funtzioan ere; eta aldaketa horien ondorioz, salmenta-bide berriak sortu dira, gure hirietako lehengo merkataritza-formatuen arteko orekari nabarmen eragin diotenak.

Krisiak aldaketa handiak eragin ditu merkataritza-jarduera duten inguruetan; zalantzas betetako garaia da egungoa, baina baita eronka eta aukera handikoa ere enpresa ekintzaileentzat, joera berriei aurre egiteko edo, gutxienez, joera horiek garaiak identifikatu eta negozio-aukera berriak aurkitzeko gai direnentzat; azken batean, birsortzeko gaitasun ikaragarria duten enpresentzat.

Merkatuaren joera askotarikoak direla-eta, zaila da, batzuetan, merkataritzarentzat lehiarako aukera izan daitezkeenak bereiztea. Beraz, behar-beharrezkoa da sektorearentzat “low cost” fenomenoaren eta outlet-en (fisikoak edo birtualak) bilakaerak, e-merkataritzaren hazkundea, sare sozialek bezeroarekin harremanetan jartzeko eta elkar eragiteko modu berri gisa, gizarte shopping-ak, erosketa kolektiboak eta erosketa mugikorrek zer suposatzen duten eztabaidatzea, bai eta iraunkortasunak eta berrikuntzak merkataritza-estrategiak zehazteko orduan duten funtzioa ere.

Hain zuzen ere, merkataritza-sektorearen nahiz kontsumoaren bilakaera eta eraldatzea teoriaren esparrutik eztabaidatzea da jardunaldiaren xedea, gaur egungo joerak ikuspegi askoz ere praktikoago batetik aztertu ahal izateko eta etorkizunean zer joera nagusituko eta indartuko diren jakin ahal izateko.

Arratsaldeko saioa gure hirietako merkataritza-enpresen esperientziak aurkezteko izango da; gaur egungo egoera ekonomikoari aurre nola egiten dioten erakutsiko digute. Tailer praktikoa moduan, euren enpresa-errealitateari gehien eragiten dieten aldaketen inguruan eztabaidatu, lehiakortasunari eta merkatuaren duten lekuari eusteko zer tresna dituzten aztertu, eta estrategia horien emaitzak ezagutaraziko dira. Hortaz, hainbat azpisektoretako enpresen esperientziak trukatzeko da xedea, estrategia askotarikoekin erantzun baitute euren negozio-eremuetan, estrategiek; aberatsak guztiak ere, etengabeko aldaketetara egokitzeko edota

horiei aurrea hartzeko malgutasunez eta profesionaltasunez jokatzera behartuta baitago sektorea. Egunetik egunera birsortzera, azken batean, etorkizunari ilusioz eta baikortasunez heldu ahal izateko.

# urban commerce

antolatzailea organitza



babeslea patrocina



laguntzaileak kolaboran



federación

